

Azpeitian zer?

Udal aldizkaria



Isiltasuna
haustera datorren
diagnostikoa



Telefono interesgarriak

Zentralita	943 15 72 00
Hirigintza	943 15 71 91
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92
Kultura	943 15 70 68
Kirolak	943 15 00 95
Hezkuntza	943 25 50 06
Parekidetasuna	943 15 79 28
Emakumeen Txokoa	943 15 70 55
Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16
Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60
Gaztelekua	943 15 71 61
Eguneko Zentroa	943 15 74 96
Liburutegia	943 15 71 95
Udaltzainak	943 15 13 13
Igerilekua	943 81 41 21
Kiroldegia	943 81 30 69
Udal Euskaltegia	943 81 19 47

Ale honetan zer?

Diagnostikoarekin batera, ekintza plana	3
Aurrera egiteko borondatez betetako lekukotzak.....	4
Elkarrizketa	6

Azpeititik kanpo bizi arren, zure etxean jaso dezakezu
Azpeitian Zer? aldizkari hau posta bidez. Egin eskaria
943 15 71 85 (Alkatetza) telefonon.

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala · Egilea: Prentsa bulegoa
Argazkiak: Azpeitiko Udala · Diseinua: Sorland
Maketazioa: Sorland
Ale kopurua: 7.000 · L.G: SS - 1148/91

Herritarren Arreta Zerbitzua



Azpeitiko Udaleko lehen solairuan aurkitzen da Herritarren Arreta Zerbitzua. Dokumentuen erregistroa, errolda agiria atera, eskaera orokorrak zein lizentzia eskaerak edo kontsultak egiten dira bertan. Neguko ordutegian, astelehenetik ostiralera, 07:30etik 14:30era izaten da zabalik; ostegunetan salbu. Egun horretan, 07:30etik 19:00etara, etenik gabe, eskaintzen zaie zerbitzua herritarrei.



Diagnostikoarekin batera, ekintza plana

31 norbanakok eta eragilek hartu dute parte LGTBI+ errealitateen diagnostikoan

Zerbait ondo ez doanean, eta aldatzeko nahia dagoenean, zerk huts egin duen jakitea izaten da lehen urratsa. Alegia, diagnostiko bat osatzea. Udalak ere pentsatzen zuen Azpeitian bizipen deseroso ugari jasandakoak izango direla LGTBI+ pertsonak, eta kolektiboko herritarren errealitateak jaso nahi izan ditu, ondoren, ekintza plan baten bidez, herri bizigarriago bat lortu ahal izateko.

Eihera kooperatiba arduratu da diagnostikoa eta ekintza plana osatzeaz. Hiru fasetan gauzatu dute lana: aurrena LGTBI+ kolektiboko hemeretzi pertsonarekin banakako elkarrizketak egin zituzten; ondoren, herriko eragileekin egin zituzten lan saioak; eta azkenik, udal gobernuko eta oposizioko ordezkariekin eta teknikariekin elkartu ziren. Beraz, guztira 31 norbanako eta eragilerekin osatu dute txostena, nahiz eta guztira 50 pertsona baino gehiagok parte hartu.

Bi dokumentu izan dira emaitza: alde batetik, txosten tekniko (udalaren webgunean dago ikusgai), eta, bestetik, narrazio moduan idatzitako *Oihu bat isiltasunean* liburuxka. Ekainaren 21ean izan zen lanaren aurkezpen publikoa, eta han izan ziren prozesuan parte hartu duten hainbat herritar ere.

Aurrera egiteko borondatez betetako lekukotzak



Azpeitiar batzuek, haien identitatearen zati garrantzitsu bat garatzerako orduan, zailtasun, min, indarkeria eta bazterkeriak bizi izan dituzte. Hori da Azpeitiko LGBTBI+ errealitateen diagnostikotik atera daitekeen ondorio nagusietako bat. Horrekin batera, ordea, argi geratu da diagnostikoan parte hartu dutenek Azpeitia LGBTBI+ pertsonentzako herri bizigarri bat izatea dutela helburu, eta inplikatzeko ere prest daudela.

Eiherako kideek, diagnostikoa osatzeko egindako banakako elkarrizketetan, lehenik eta behin,

Azpeitia definitzeko eskatu diete elkarrizketatuei. “Tradizioa” hitza errepikatu dute behin eta berriz. “Isolamendua” izan da asko atera den beste kontzeptu bat, eta aipatu dute isolamendu horrek herriko dinamiketan, berrikuntzetan, ideietan eta aldaketetan eragina izaten duela sarri; onerako ere bai inoiz, adibidez, euskarari eusteko.

Azpeitiko LGBTBI+ errealitateetara etorrita, isiltasuna, ezkutuan bizi beharra eta klandestinitatean bizi beharra aipatu dituzte elkarrizketatuek. Jende askok sentitu du bera

LGTBI+ kolektiboko erreferenterik ez dutela izan adierazi dute diagnostikoan parte hartu dutenek

zela kolektiboko kide bakarra herrian. LGTBI talde antolaturik ere ez dela inoiz egon kontatu dute, ez eta kalejira, festa edo antzekorik ere.

Horrekin lotuta, espazio publikoari eta aisiari dagokionez, bitxikeria bat ere ateratu da diagnostikoan. Zein duten urteko egunik gustukoena galdetuta, uztailaren 30a esan dute batek baino gehiagok, egun horretan etortzen delako jende gehien kanpotik eta irekiera moduko bat sentitzen dutelako. Aldiz, Elegante Eguna heteroaraua indartzen duen eguntzat dute.

Diagnostikoan, indarkeriari buruzkoa da ataletako bat. Seinalatuak sentitu direla esan dute elkarrizketatuek, baita bakardade sentsazioa, gaizki dagoen zerbait egitearen sentsazioa, lotsa eta abar sentitu dituztela ere. Mutil askok, berriz, eskola jazarpena jasan dute.

SEXILIO HANDIA

Esanguratsua da sexilioarena ere; hau da, norberak bere jaioterri, esparru natural edo bizitokitik alde edo ihes egin beharra izatea, haren identitate, sexu lehentasun edo genero adierazpenak askatasunez garatu ahal izateko. Elkarrizketatutako norbanakoetako batek bakarrik esan du ez dela Azpeititik kanpo bizi izan. Erreferente falta ere ez da batere lagungarria izan kolektiboko pertsonentzat.

Horiek horrela, eta zeri esker egin duten aurrera galdetutakoan, mugimendu feminista, familiako emakumeak eta futbol taldea (emakumeentzat bakarrik) izan dira erantzunetako batzuk. Aurrera begira, berriz, besteak beste, desio hauek adierazi dituzte: tentsiorik gabe bizitzea, begiradarik ez sentitzea, sexiliorik ez egotea, bidelagunak izatea, elkartzeko toki bat edukitzea, prestakuntza eta hitzaldietan dirua inbertitzea, telefono bat indarkeria kasuetarako...



“Parte hartzearen oso balorazio positiboa egiten dugu”

Iñi Etxezarreta eta Kattalin Miner
Eihera kooperatibako kideak



Diagnostikoa egiten hasterakoan, bazenuten zalantza bat: ea herritarrak parte hartzeko prest egongo ote ziren. Azkenean, herriko eragile eta udaleko ordezkariekin batera, LGTBI+ kolektiboko hemeretzi norbanakok parte hartu dute diagnostikoan. Zer balorazio egiten duzue?

Azpeitia oso herri itxia dela esaten ziguten, eta bagenuen beldurra, baina parte hartzearen oso balorazio positiboa egiten dugu: jende asko etorri da, eta jendea oso eskuzabala izan da, batek beste bat lortzen zuen, bigarren horrek hirugarren bat... Ikusi dugu masa bat badagoela, eta gogo bat badagoela. Pertsona batzuen errelatoak gogorrek dira, baina inplikatzeko jarrera bat erakutsi dute, eta horrek adierazten du konfiantza dagoela aurrera begira egingo denarekiko.

LGTBI+ pertsonekin ez ezik, herriko talde eta eragileekin eta udal ordezkariekin ere bildu zarete. Zergatik?

Bigarren fasean, jubilatuekin, kultur elkarteekin, hezkidetzakoekin eta abar egin genituen lan saioak. LGTBI+ kolektiboko kideak izan edo ez, ikusten genuen herrian inpaktu bat zeukatela, agente ezinbestekoak zirela. Askotan ematen du LGTBI+ bizitzak eta errealitateak hobetzea LGTBI+ pertsonen ardura bakarrik dela, baina azpimarratu behar dugu herri oso baten ardura dela herri bizigarri eta eroso bat sortzea. Hirugarren fasean, udaleko ordezkariekin egon ginen: udal gobernukoekin, oposiziokoekin eta teknikariekin. Ikusten genuen diagnostikoaz gain neurriak ezinbestekoak direla, eta neurri horiei erantzuteko gaitasun handiena udalak du. Ikuspegi teknikoago hori ere jaso nahi genuen.

Txosten teknikoaz gain, narrazio moduan idatzitako liburuxka bat ere osatu duzue, eta herritar ugariren bizipenak ageri dira bertan. Zer eragin izan dezake liburuxkak herritarren artean?

Aipatu bezala, bizipen asko gogorrek dira, baina guk aukera bezala ere planteatu nahi dugu lan hau: norberak bere herria, kasu honetan Azpeitia,

beste era batera begiratzeko eta begirada fintzeko aukera bezala. Seguru irakurritakoak harritu inor gutxi harrituko duela, baina bada aukera bat, beste batzuen azalean jarri, eta ikusteko herria nola begiratu beste leku batetik eta ikusteko herriak nola begiratzen gaituen beste leku batean gaudenean.



Herritarren lekukotzetako batzuk:

Inoiz ezta in ezerre kalien, ez kalejira bat, ez festa, poteue... Isiltasun haundiye dao”

Azpeitin gauzak oso ixkutun emate zien ni gazti nitzenin, oin eztatik nola daon asuntue. Nik behintzet enun ezautzen inor ni baino zaharro queer komunitatien parte zanik”

Herri hau beti izan da oso herri politizaue, oso politikan sartuta eon dana, ta jo, era berin, LGTBI mugimendu edo eskubidetan oso... hutsune haundi bat dao ez?”

Espazio seguruna okurritzen zat saninaziotan 30ien, txosnagunien, erdia kanpoko jendia dalako”

Espazio instituzioala oso normatibua da, ez dago bestelako gorputz edo identidadeik, hausnarketa bat eman beharko lukete ea zein LGTBI+ proiektio degun udal bezala”

Ta nik iteten galderie da: LGTBI komunidadientzat bizigarriye da Azpeiti? Erosue da? Ba, ez dakit”

Gurasoek Azpeitin nahiago dute LGTBI+ seme-alabarik ez izan”

Badago jende pila bat ez dena atera armairutik, esan duna ba nire bizitza horrela izango da”



Energia Bulegoa

943 11 98 06
energia@azpeitia.eus

Ordutegia:

Astelehen, astearte eta
ostiraletan: 10:00etatik 14:30era.
Asteazken eta ostegunetan:
17:00etatik 19:30era.

www.azpeitia.eus